

## KANALAK

Lehendabizi, bezeroengana heltzeko bideetako bat fisikoa izango da. Ofizina bat edukiko dugu eta bertan psikologo, administrari eta abokatuak batera egongo dira lanean, gela desberdinetan antolatuta. Taldean lan egitea oso garrantzitsua dela uste dugu horregatik, esparru berdineko langileak zona berdinean kokatuta egongo gara horrela, elkar lagundu ahal izango dugu. Horrez gain, psikologoaren eremuan pazienteak atenditzeko hainbat gela jarriko ditugu, sofa eta eserleku erosoekin, bezeroak ongi senti daitezten.

Bestalde, bezeroengana iristeko beste modu bat telefono bidez da. Telefonoz dei ahal izango gaituzte eta guk ofizinatik erantzungo diegu: txandak hartzeko, aholku laburrak emateko, notifikazioak emateko...

Azkenik, gaur egun asko erabiltzen den tresna dira sare sozialak eta horregatik garrantzia handia eman nahi diegu gure proiektuan; beraz, mugikorrek eta bertako aplikazioak erabiliko ditugu. Psikologia zerbitzua ez da sare sozialen bidez eskeiniko, baina beste gai batzuk aurrera eramango dira. Adibidez, dudak argitu, gure zerbitzueri buruz berri eman, txandak hartu...

